



BERDINTASUN TOPAGUNEA

OTSAILAREN 22AN, 16:30EAN, LEHEN BILERA ARETO NAGUSIAN

Laudio Ikastolak enpresako berdintasun plana gauzatu berri du. Lan esparruan eragingo duen ekimen honetatik haratago, Ikastolako Hezkuntza Komunitate osoari irekitako Berdintasun Topagunea eratuko dugu orain.

Topagunearen xedea Hezkuntza Komunitatean hezkidetzeta eta sentsibilizazio lana sustatzea eta bertoko partaide guztion arteko ekimen komunak garatzea izango da.

IKASLE, GURASO ETA LANGILEEN TOPAGUNEA

Guraso, ikasle eta langileen elkarlanerako topagunea sortu nahi dugu, bertan parte hartzeko aukera nahi duen orori luzatzen diogularik.

Lehen bilera otsailaren 22an, asteartea, 16:30ean, burutuko da Ikastolako Areto Nagusian.

Bilera irekia izango da. Gaian interesatuta egonez gero baina bilerara ezin baduzu etorri, utzi zure kontaktua idazkaritzan eta zurekin harremanetan jarriko gara.

**5 GENERO
BERDINTASUNA**

